

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2018 Foru Dekretua, irailaren 25ekoa. Onartzea Ekonomia Garapen eta Lurralde Oreka Sailaren oinarri arautzaileak eta diru-laguntzak emateko deialdia, herrigune txikietan eraikuntza mota berriak sustatzeko

2018ko maiatzaren 27an egin zen Lurralde Jareetako osoko bilkuran, aho batez onetsi zen Arabako lurraldea herritarrez hustea ekiditeko hainbat ekimen jasotzen dituen mozioa.

Herriak husteak, beste hainbat ondorioren artean, honako hauek galtzea dakar: kultura ondarea, natura ingurunea baliatzeko moduak eta erak, pertsonen artean eta gizartean harremanak izateko sistemak eta moduak, eta, azken finean, historian zehar sortutako sistemen balizko galera eragiten du, eta errealitate berri ziurgabe eta kezagarri batera garamatza, eta horren aurrean, neurriak hartu beharra dago ezinbestean.

Gure gaurko errealitatea tematia da, gizarte hiritar baterantz goaz ezinbestean; egun, gizakien ehuneko 50 baino gehiago hirietan bizi da, eta errealitate hori areagotu baino ez da egingo gero eta abiadura handiagoan eta gero eta gehiago.

Arabako landa ingurunea errealitate horren adibide paradigmaticoa da: mende erdi baino gehiago darama haren inguruko hiriguneez daukaten erakarmen indartsuaren pean, eta argi uzten du populazioa zahartzen ari dela eta belaunaldi berriek ez dituztela zaharrak ordeztuko.

Euskadiko etxebizitza publikoen politikak erreferentea dira arloan, zaila da haien aurka eragozpen handiak jartzea; aitzitik, berriazko aintzatespena merezi dute. Hala ere, badute hutsune nabarmen gero eta kezagarriago bat: landa ingurunea.

Etxebizitza publikoko politika horrek, bai etxebizitzetara sartzekoak bai etxebizitzak zaharberritzekoak, gehienetan hiri premiak ditu erreferentzia, eta ia inoiz ez ditu kontuan izaten landa inguruneari eta zehatz-mehatz Arabako landa inguruneari eusten dioten herrien premiak. Eta arazo horri administraziook; hau da, autonomia erkidegoko orokorrak, foru administrazioak eta udal administrazioak heldu behar diogu:

Etxebizitza da pertsonon bizitzako gune nagusia, han izaten ditugu gure harreman pertsonalik, familia harremanik eta gizarte harremanik garrantzitsuenak. Hortaz, hiri etxebizitza publikoa azken berrogeita hamar urteetan nabarmen bilakatu da; halako moldez non, adin horretako etxebizitza bat nekez lehia baitaiteke kalitatean eta beste edozein eratako prestaziotan etxebizitza egin berriekin. Aldiz, ekintza publikoa landa etxebizitzan ia ez da existitzen.

Ekintza publikoak ukatu egiten ditu hirigintza, irisgarritasun, bero sare, ur hornikuntza eta teknologia berrietarako sarbide lanak, zeinak hiri ingurunean eztabaidaekin baitira, eta ukatzen ditu arrazoi bategatik, eta sinpleki da ez direla betetzen ezarritako lege estandarrik, eta ez dira betetzen hiri errealitateak berarenak dituelako eta hiri errealitateari egokituta daudelako; hau da, landa errealitateari urruti daude.

Hartara, edozein pertsonak, batez ere gazteek, baldin eta egun erosotasun eta kalitate estandarrik izan nahi baldin baditu eta babes publikoa behar baldin badu, ezinbestean hiri ingurunera jo behar du.

Indarreko araudiak ez ditu kontuan hartzen ez dentsitatea, ez tipologia (bizitegitarako, blokean), ez neurriak, ezta askotariko erabilerak ere (landa etxebizitza askok lehen sektoreko jardueratarako osagarri zehatzak behar dituzte).

Horrez gain, gure landa inguruneko bizitokien garapenak beste paradoxa bat bizi du, hau ere larria eta benetan negatiboa: hirietako etxebizitzaren garestitzeak eta aldi jakinetan soilik erabiltzeko bigarren etxebizitza baten nahiak sortutako herri asentamenduak.

Gertakari horiek askotan gure herrietako ingurune eraikia andeatu dute. Handitze horiek ulertu behar dira hirigune historikotik deskonektatuta dauden urbanizazio gisa, eta kaltetu egin dute landa etxebizitzek espazio publikoa betetzeko betidanik zeukaten modua, herritarrak bildu, ezagutu eta sozializatzea ahalbidetzen zuena, eta horrek ekarri du landa inguruneko, herriko etxeko balio askoren galera.

Hortaz, administrazio publikoak bi bide landu behar ditugu:

Arabako herrietako bizilagunak babestu, etxebizitzetako politika publikoetan sar daitezen haien idiosinkrasiari uko egin gabe.

Eraikinaren arkitektura balioa berreskuratu Arabako landa ingurunean, gaur egungo landa etxe berri baterantz joz, zeinak, era berean, aukera emango baitu berreskuratzeko espazio publikoa gure herriak egituratzeko tresna den ideia.

Ondorioz, onartu eta sustatu beharra daukagu landa errealitateak estandar berenezko eta bereziak behar dituela; baita landa eraikinak arkitektura onekoak eta gaurkoak direla ere, hiri eraikinak diren legez, baina arkitektura hori loturik dagoela landa bizitzaren balio tradizionalei eta edozein hiritarrek XXI. mendean eska ditzakeen kalitate eta erosotasun estandarrei.

Horretaz jakitun izanik, lehen pausoa eman nahi dugu; dekretu honen helburu da, batetik, dirulaguntza politika zehatz eta mugatua ezartzea, eta bestetik, administrazio guztiei elkarlanerako deia egitea, Arabako bereziki garrantzitsua den landa inguruneko etxebizitza publikoen politikari ekiteko, eta landa inguruneko ondare eraikia birgaitzeko politika publikoak martxan jartzeko, hala, hirietakoaren antzeko erosotasun eta kalitate estandarrak izan ditzan.

Baldin eta etxebizitza gure bizitzaren ardatza bada, gure gizartea komunikaturik eta konektaturik dago garraibideen eta interneten bidez, eta errealitate hori eta XXI. mendearekin bat datozen eraikinak lehenengo pausoa izan daitezke neurriak jartzen hasteko Arabako Lurralde Historikoa herritarrez huts ez dadin.

Foru Aldundiaren legealdiaren helburu estrategikoetako bat lurralde oreka izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu jarduketak finantzatzea, alde batetik, herrigune txikietan biztanleak finkatzen laguntzeko, eta bestetik, auzotarren arteko harremanak sustatzeko.

Beharrezkoa da oinarri argi eta zehatzak ezartzea dirulaguntza horiek eskuratzeko, eta oinarri horiek objektibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu behar dituzte, eta, halaber, aplikatuz 11/2016 Legeak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzienak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, ezarritakoa, hona hemen ondasunen inbentarioak egiteko toki erakundeentzako dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea herrigune txikietan eraikuntza modu berrien aldeko ekintzak finantzatzeko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak emango dituen dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorre.

Aipatutako oinarriak dekretu honen I. eranskin gisa jaso dira.

Bigarrena. Lehiaketa bidez 200.000,00 euroko dirulaguntzak emateko deialdia onestea. Deialdi hori espedienteari lotuta dago eta dekretu honen II. eranskina da.

Hirugarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018rako "10.2.98.17.00.762.90.04 Dentsifikazio baxua landa ingurunean" (10-267 lerroa) izeneko aurrekontuaren kargura emango dira.

Laugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiaren bidez onartu zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera dagoen III. eranskinaren edukia gehituz.

Bosgarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2018ko irailaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken saileko diputatua

MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreken zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ

I. ERANSKINA

Herrigune txikietan eraikuntza modu berrien aldeko ekintzak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak

1. Xedea

Dirulaguntza jaso dezakete 400 biztanletik beherako herriguneetan eraikuntza modu berrien alde egingo diren ekintzek.

Dirulaguntzaren xedea da laurehun biztanletik beherako herriguneetan bizitegi-eraikin berriak sustatzea, herrigune horietako biztanleria mantentzeko eta beste helburu hauetarako:

1. Hiriko espazio publikora irekita dagoen landa etxebizitzaren zentzu tradizionala berreskuratzeko.

2. Landa eremuan, arkitektura kalitate estandar berriak sartzea: erosotasuna, energia eraginkortasuna, irisgarritasuna, konektagarritasuna eta bizitza kalitatea, oro har.

2. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Dirulaguntzaren xede diren ekintzek berritzaileak izan behar dute, landaguneetako gaur egungo eraikuntza moduen aldean.

1. Landa zonetako biztanleak gehitzera edo mantentzera bideratutako promozioak izan behar dute, eta arreta berezia jarriko da berrogeita bost urtetik beherakoei zuzendutako etxebizitza berrien eskaintzan, edo adin horretatik gorakoei zuzendutakoetan, adingabeko ondorengoak badituzte.

2. XXI. mendeari dagozkion estandarrak izan beharko dituzte arlo hauetan: arkitektura kalitatean, bizigarritasunean eta erosotasunean.

3. Hirigunearen bilbean sartu beharko dira, urbanizazio itxi eta bakartuetako promozioak izan ezik.

4. Ziurtatu beharko da dirulaguntza eskatzen duen udalak badituela etxebizitza publikoaren eskatzaileak Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan (ETXEBIDE) izen emanda, hain zuzen ere, dirulaguntza jasoko duen promozioko etxebizitza kopuruaren ehuneko berrogeita hamarreko kopurua edo handiagoa.

Halaber, promozioek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lurzoruaren titularra den administrazioak dohainik lagatuko lurzoru publikoan egotea eta foru dirulaguntzaren helburuak izatea.

- Udalaren titulartasunekoa izatea. Udala izango da prozedura osoaren arduradun.

Lortutako promozioak:

- Babes publikoko etxebizitzaren edozein araubide izan beharko dute, gai horretan aplikagarria den legediaren arabera.

- Etxebizitzak azken titular izango direnei besterentzeko, babes publikoko etxebizitzaren araubidean ezarritakoari jarraituko zaio.

Betiere, jardunek aplikagarri zaien hirigintza legedia bete behar dute.

3. Diruz lagundu daitezkeen inbertsio eta gastuak, eta baldintza gehigarriak

1. Diruz lagundu ahal diren gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaera daukatena eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa, tori erakundeak ezin badu berreskuratu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

3. Horiek horrela izanik ere, ez dira diruz lagunduko Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru planak diruz lagundutako eskaerak.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntzekin edo diru sarrerekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino gehiago.

5. Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat burutzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

6. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikulua arabera, honako hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri aginteen jarduketara gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak: tratu berdina; aukera berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkartza orekatua; eta koordinazioa eta lankidetzak.

Diruz lagundutako jarduera betetzeko administrazio kontratuak egiten badira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua aplikatuko da. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean esleipendunak izango duen betebeharrak bat jasoko da: prestazioa ematean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea; hori guztiori, kontratuen legedia betetzeko betiere organo eskudunak finkatuta kontratazio mota edo ezaugarri horri halako neurria aplikatu behar zaiola.

4. Baliabide ekonomikoak

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

5. Erakunde onuradunak

Arabako Lurralde Historikoko udalerriak izan daitezke dirulaguntzen onuradunak.

Ezin dira onuradunak izan azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu diren erakundeak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak,

eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako egoeretan daudenak ere.

6. Emakidaren prozedura. Eskaerak baloratzeko eta dirulaguntzak emateko irizpideak. Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzak nori eman lehiaketa bidez ebatziko da.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoak jardueraren kostuaren arabera kalkulatu da. Jardueraren kostutzat hartuko da lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gehi erakunde onuradunak berreskuratu ezin duen BEZaren ehunekoak.

Erakunde onuradunek ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik 10 egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote, ebazpenean ezarritakoa onartu dutela pentsatuko da.

Hornidura agortu ondoren dirulaguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran. Eskatzaile hauek dirulaguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, hau da, onuradunen batek bere dirulaguntzari uko eginez gero edo behar bezala frogatzen ez badu ezarri bezala erabili duela.

7. Onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea, eta ordainketa

Dirulaguntza bat ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da. Dirulaguntza ordaintzeko, deialdian zehaztuko den dokumentazioa aurkeztu behar da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehieneko epea.

Justifikatu beharreko aurrerapenak egin ahal izango dira, foru araubidean ezarritakoarekin bat etorritik. Deialdian aukera hori aurreikusi ahal izango da eta baita justifikazioa egiteko modua ere.

Justifikazioa honela egingo da:

a) Jarduerak egin izana justifikatzeko memoria; agiri horretan jaso beharko dira eskaeran aurkeztutako aurrekontuko partidak eta laguntzaren xede den inbertsioa gauzatzeko egindako gastuak eta kostu hautagarriak, eta benetako gauzatzearekiko alderaketa.

b) Fakturen kopia eta haiek ordaindu izana egiaztatzen duten banku frogagiriaren kopia.

8. Babesa

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bes-telako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak emandako dirulaguntzaren berriazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira.

9. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako diru kopuruak itzuli egin beharko dira xedapen hauetan ezarritako kasuetan: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita azaroaren 17ko 38/2003 Legearen (dirulaguntzen lege orokorraren) arautegia.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta 53/1992 Foru Arauko I. kapituluko II. tituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira (53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, ekonomia eta aurrekontu araubidearena)

Kasu hauek oinarrien ez-betetzeak izango dira:

a) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.

- b) Dirulaguntza eskuratzea eskatutako baldintzak bete gabe.
- c) Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.
- d) Onuradunak ez betetzea dirulaguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.
- e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.
- f) Jarduera burutzeko behar den baino diru gehiago jasotzea. Kasu horretan, jardueraren kostuaren gaineratik eskuratutako soberakina itzuli beharko da, bidezko berandutze interesak gehituta.
- g) Xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

10. Egiaztatpena

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatuak deialdi honen eta, hala badagokio, oinarri hauen garapenerako bidezkoztat jotzen diren ebazpenak onartuko ditu, dirulaguntza tramitatzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta akzioak baliatu ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jarduerekin loturik dauden eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

11. Erantzukizunak

Onuradunek beren gain hartuko dituzte beren jarduera edo programak gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak, eta indarrean den legediak haiek gauzatzeko galdegiten dituen baimen guztiak eskatu beharko dituzte.

12. Aldaketak

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak, emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, eta dirulaguntzaren zati bat itzultzea. Behin dirulaguntza onetsitakoan, hura esleitzeko arrazoiz izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko diputatuak, dirulaguntzaren onuradunak, arrazoituki proposatuta, bere esku izango du dirulaguntza aldatzea dagokion foru aginduaren bidez.

13. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan edozein zalantza sortuz gero, aldundi honetako Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak ebatziko ditu.

14. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta hauen ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu ahalko dira, 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

15. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena; indarrean dagoen aurrekontu antolamenduaren foru araua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

16. Indarrean sartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

II. ERANSKINA

Herrigune txikietan eraikuntza modu berrien aldeko ekintzak finantzatzeko dirulaguntza deialdia

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Dirulaguntza jaso dezakete 400 biztanletik beherako herriguneetan eraikuntza modu berrien alde egingo diren ekintzek.

Bigarrena. Erakunde onuradunak

Arabako Lurralde Historikoko udalerriak izan daitezke dirulaguntzen onuradunak.

Ezin dira onuradunak izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu diren erakundeak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako egoeretan daudenak ere.

Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Etxebizitzak eraikitzeke diru laguntza lurzorua urbanizatzegatik emango da. Hortaz, honako hauek soilik joko dira hautagarritzat eta finantzatu ahal izango dira programaren kontura:

- a. Urbanizazio proiektuak idaztea.
- b. Materialki gauzatzea xedean aipatutako gunetan etxebizitzak sustapen publikora bideratutako urbanizazioa.
- c. Haien zuzendaritza teknikoa

Diruz lagundu ahalko dira 400 biztanletik beherako herriguneak mantentzen laguntzen duten sustapen guztiak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Bete beharreko baldintzak

Nahitaez izan behar dira titulartasun publikoko lurzoruan kokatuta dauden babes publikoko sustapenak, udalerriko hiri bilbean sartzen direnak; gainera, etxebizitzak bide publikoari begira egon behar dira, eta ezin izango dira, inola ere, sustapen itxi eta lurzati isolatu edo itxiak izan.

Ezinbestekotzat joko da sustapenak lagun dezala hiri bilbea finkatzen eta zabaltzen, foru erakunde honek emandako dirulaguntzak balio izateko udalerraren espazio publikoa behin betiko hobetzen.

2. Bete beharreko baldintzak

- a) Etxebizitzen efizientzia energetikoko hobekuntzak orain herrigunean daudenen aldean.
- b) Gune publikoak eratzea auzotarren harremanetan laguntzeko, hala nola parkeak, haurrentzako guneak, adinekoentzako ariketa zirkuituak, kanpoalde estaliak, txikizkako merkataritza guneak eta abar.
- c) Genero ikuspegia txertatzea eskaera xede den sustapen publikoan.
- d) Ingurumenean kalte gutxiago eragingo duten eraikuntza materialak erabiltzea: material birziklatuak, haiek berriz ere erabiltzea baldin eta desmuntatzen badira, karbono aztarna:
- e) Etxebizitzen behin betiko eskatzaileen zerrenda eratzea, eta udalerriko pertsonarik gazteenak bizitzen gera daitezen bultzatuko da.

Berritzailetzat jotzen da:

- a) Etxebizitzen efizientzia energetikoko hobekuntzak orain herrigunean daudenen aldean.
- b) Gune publikoak eratzea auzotarren harremanetan laguntzeko, hala nola parkeak, haurrentzako guneak, adinekoentzako ariketa zirkuituak, kanpoalde estaliak, txikizkako merkataritza guneak eta abar.
- c) Genero ikuspegia txertatzea eskaera xede den sustapen publikoan.
- d) Ingurumenean kalte gutxiago eragingo duten eraikuntza materialak erabiltzea: material birziklatuak, haiek berriz ere erabiltzea baldin eta desmuntatzen badira, karbono aztarna:

Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

1. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018rako "10.2.98.1700.762.90.04 Dentsifikazio baxua landa ingurunean" izeneko aurrekontuaren kargura emango dira, eta gehienez ere 200.000,00 euro.

2. Diruz lagunduko da:

- a. Sustapen publikoaren urbanizazioaren egikaritze materialean diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko ehun; gehienez ere 140.000 euro.
- b. Aurkeztutako eta urbanizatzearen egikaritze materialari dagokionez onartutako eskaera guztiei laguntza eman ostean soberakinik balego, honako hauei emango zaie laguntza:
 1. Urbanizazio egikaritze proiektuen ehuneko berrogei.
 2. Urbanizazio proiektuaren egikaritzea zuzentzeko kostuen ehuneko hogeita hamar.

Diru laguntza programara proiektu bat baino gehiago aurkeztuko balitz, seigarren xedapean (Prozeduraren izapidetzea eta balorazio irizpideak) xedatutakoa beteko da, eta onuraduna izango da bertan agertzen diren irizpideen arabera balorazio onena lortzen duen proposamena. Balorazioa egiteko, kontuan hartuko dira lehenik urbanizazioaren egikaritze materiala, eta bigarrenik, obraren proiektua eta zuzendaritza.

Bosgarrena. Eskaerak eta haiek aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko, hogeitaz eguneko epea egongo da, oinarri hauek Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Dirulaguntza mota hau jaso nahi duten erakundeek eskaerarekin batera, proiektua idatzi eta gauzatzeak dakarten kostu ekonomikoaren aurrekontu xehakatu bat aurkeztu beharko da.

Horrez gainera, eskaeran agertu beharko da berreskuratu ezingo dela aurreikusten den jasandako BEZa, eta administrazioak hori hala den egiaztatu ahal izango du.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

Aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orekaren Zuzendaritzak interesa dutenei eskatuko die hamar eguneko epean akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak aurkez ditzatela. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da eta beren eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

Seigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta balorazio irizpideak

1. Espedientea izapidetzeko eskumena duen organoa Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko Toki Administrazioaren Zerbitzua da.

2. Balorazio irizpideak

Diruz lagunduko diren jardunak hautatzeko, aurkeztutako eskaerak ezin badira hornitu aurrekontuan izendatutakoarekin, honako lehentasun irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Eraikina sustatzen den herriguneko biztanleak. 30 puntu.

0 eta 150 biztanle arteko herrigunek: 30 puntu.

150 biztanle baino gehiagoko eta 250 biztanle baino gutxiagoko herrigunek: 20 puntu.

250 biztanle baino gehiagoko eta 350 biztanle baino gutxiagoko herrigunek: 10 puntu.

350 biztanle baino gehiagoko herrigunek: 0 puntu.

b) Proiektuaren berrikuntza maila. 40 puntu.

Deialdi honen hirugarren apartatuan jasoriko irizpideen arabera baloratuko da.

c) Eraikitzeak diren etxebizitzaren eskaria. 30 puntu.

Eskaria egiaztatuko da udaletxean irmo aurkeztutako eskaeren bidez.

Sustapenaren ehuneko 75 baino gehiago eta ehuneko 100 artean 30 puntu.

Ehuneko 50 baino gehiago eta ehuneko 75 artean edo hori baino gutxiago: 20 puntu

Ehuneko 10 baino gehiago eta ehuneko 50 artean edo hori baino gutxiago: 10 puntu

Ehuneko 10 edo hori baino gutxiago: 0 puntu

Zazpigarrena. Dirulaguntzaren muga

Emandako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da izan onuradunak bere lana egitean izan duen kostua baino handiagoa, jasotako beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk ere kontuan hartuta.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.

2. Lurralde Orekaren zuzendaria buru duen Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak; batzorde hori osatuko dute, batzorde kide gisa, Laguntza Juridikoaren Atalaren buruak, Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako teknikari batek, eta Toki Administrazioaren Zerbitzuaren buruak, idazkari gisa.

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen dituen epeetan.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

4. Toki Administrazioaren Zerbitzuak proposaturik, organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emango du, hiru hilabeteko epean gehienez, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsitatzat jo ahal izango dute eskaera.

5. Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde orekaren Saileko diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebartziko ditu dagokion Foru Agindua- ren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

6. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein erakunde onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

7. Ebazpen horretan, baiezkoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, eta bai ere ordaintzeko modua, zer baldintzekin esleitu den, lanak gauzatzeko epea eta lana ezarritako epean bete ezean zer ondorio izango diren; bestalde, aurrerakin gisa edo konturako entrega gisa ordaindu ahal izango da esleitutako dirulaguntza, toki erakundeak dagokion kontratua esleitzen duen unean.

8. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

10. Erakunde onuradunen batek uko egiten badio dirulaguntzari, dirulaguntza eman ahal izango zaie deialdi honen seigarren apartatuan ezarritako lehentasun ordenaren arabera hurrengoak diren toki erakundeei.

Bederatzigarrena. Esleipena, proiektua gauzatzea eta justifikazioa

1. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak proiektua idatzi edo gauzatzeko lana esleituko du kontratazio espedientea onetsi ondoren.

2. Dirulaguntza jaso duen proiektuak 2020ko uztailaren 31 baino lehen egon beharko du erabat egikariturik. Justifikazioak urbanizatzeko faseari buruzkoa ez ezik, dirulaguntza jaso duen sustapenaren benetako eraikitzeari buruzkoa ere izan beharko du.

3. Kasu berezietan, eta aurretik bidezko justifikazioa onartuta, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak dirulaguntzaren xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia luzatzea onartu ahal izango du. Luzapenaren iraupena kasuan kasuko inguruabarren arabera finkatuko da; nolahi ere, gehienez epealdia 6 hilabete luzatu ahal izango da, interesdunak hasierako epealdia amaitu aurretik eskaera justifikatua aurkeztuz gero.

4. Hauexek dira erakunde onuradunaren betebeharrak:

a) Obren eskura jartzea jarri beharreko lursail guztiak.

b) Onespina ematea eraikuntza proiektuari eta proiektu osoaren obra guztien kontratazioa egitea.

c) Idatzitako eraikuntza proiektua gauzatzeko obrak zuzendu eta gainbegiratzea; baita obren segurtasun eta osasun arloak koordinatzea ere.

d) Foru aldundiarekin lankidetzan aritzea eraikuntza proiektua lantzeko eta obrak gauzatzeko ari diren bitartean beharrezkoa denerako.

5. Erakunde onuradunak betiere bost urtez gordeko ditu sortu diren gastuen ziurtagiri eta frogagiri guztiak, Arabako Foru Aldundiak egiaztapen egokiak egin ditzan.

Ordainketak izendunak, erakunde onuradun bakoitzarentzakoak, izango dira.

Dirulaguntzen ordainketa guztia erakundeak kontratua edo obra kontratuaren esleipen ebazpena, hala badagokio, eman ondoren egingo da. Itzulketak lotuta egongo dira toki erakunde bakoitzak Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean dituen partaidetzei.

Dirulaguntzen justifikazioa justifikatutako kontu sinplifikatua izango da, eta hauek osatuko dute:

1.) Memoria bat, justifikatuz dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak nola bete diren eta adieraziz egindako ekintzak eta lortutako emaitzak.

2.) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan identifikatu egin behar dira hartzekoduna, gastuen agiria edo ordainagiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Honako hauek aurkeztu beharko dira: fakturak edo jatorrizko agiri baliokideak edo fotokopia konpultsatuak eta 1.000 euro baino gehiagoko gastuen ordainketa ziurtagiriak. Epigrafe horretan justifikatuko da erakunde onuradunak BEZa benetan berreskuratu ezin izatea.

3.) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4.) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita haietatik eratorritako interesena ere.

Aurreko 2.) apartatutan jasorikoz gain, organo emaileak laginketa tekniken bidez egiaztatuko du ziurtagirien ehuneko 10, eta hala, ehuneko hori gehitu ahal izango da egiaztagiriko biztanle guztietara arte, gorabehera esanguratsuak gertatu baldin badira.

Justifikazio kontua aurkezteko epemuga 2020ko urriaren 31 izango da, baina epe hori luzatu ahal da aurreko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena. Informazioa eman beharra

Erakunde onuraduna behartuta dago Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematera.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzailari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza galtzea

Erakunde onuradunak galdu egin ahalgo dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldeztu aurretik espediente hasita, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritako kasuetan.

Dirulaguntza galtzen bada espedientearen bertutez, lehen aipatutako xedapenetan ezarritako zehapen araubidea ezarriko da.

Hamabigarrena. Publizitatea

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamahirugarrena. Errekurtsoak

Deialdi hau zein beronen ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkara daiteke, administrazio publikoen eta administrazio prozedura erkidearen legean ezarritako kasuetan eta eran.

Hamalauugarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztia 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, arautuko dute, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

III. ERANSKINA

Dirulaguntza lerroa: herrigune txikietan eraikuntza modu berrien alde egiteko dirulaguntzak

Lehentasun estrategikoa: inbertsioak berreskuratzea eta lurralde oreka

Ardatz estrategikoa: 7. Lurralde orekan aurrera egitea

Helburu estrategikoa: 7.5. Landa azpiegiturak hobetzea

Saila: Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Saila

Aurrekontu partida: 10.2.98 1700 762.90.04 Dentsifikazio baxua landa ingurunean

2018	2019	2020	GUZTIRA
200.000,00	0,00	0,00	200.000,00

Dirulaguntzaren xedea: 400 biztanletik beherako herriguneetan eraikuntza modu berrien alde egiteko ekintzak.

Onuradunak: Arabako Lurralde Historikoko udalerriak.

Dirulaguntzak esleitzeko prozedura: lehiaketa.

Dirulaguntzaren oinarrizko lerroak:

Etxebizitzak eraikitzeke diru laguntza honako hauetarako:

- Urbanizazio proiektuak idaztea.
- Urbanizazio proiektu horiek gauzatzea.
- Proiektua gauzatzeko zuzendaritza teknikoa

Baterako finantzazioa: ez dago.

Jarraipen erregimena eta adierazleak: ez dagokio.